

Amari, aitari, Juankarri, Laidari eta senide eta lagun guztiei

OROITZAPEN LAUSOTUAK

Izengoitia: Itzea

Adina: 29 urte

“Gaur oso goiz esnatu naik amak. Gainera, ustekabe itzela jaso diat: osaba Luis zetorkiguk bisitan datorren astean. Izugarri poztu naik berri horrek, estimu handitan baitzeukaat. Oroimen zoragarriak zetozkidak burura osaba Luisengan pentsatzen dudan guztietan; ederki oroitzen nauk, bai, sei urte besterik ez nituenean, uretara bota ninduenean Donostiako Santa Klara irlako kareletik; hau izualdia! Uretatik sekulan ez nintzela aterako iruditu zitzaidan, baina estualdi hartatik bizirik atera nintzela konturatu nintzenean, berehala ohartu ninduan urari ordura arte nion beldurra desagertu egin zela; hori osaba Luisi zor zioat. Madrilen bizi duk. Aspaldi joan zuan hara; Arte Ederrak ikasi ondoren, Madriler a alde egin zian ikastaro bat egitera eta hantxe geratu zuan, baita hara ezkondu ere.

Bakeroak eta elastiko gorria jantzi eta unibertsitatera joan nauk. Gainera, arratsalde gorrotagarriak baina, aldi berean, atseginak eta lagunartekoak igaroarazi dizkigun lan itzela aurkeztu behar izan diagu ikaskide guztien aurrean. Eta primeran atera zaiguk. Gustura geratu nauk eta lasai, gainera.

Eskola-orduak nahiko azkar eta aise igaro zaizkidak. Edonon gaudela atzealdean esertzea gustatzen zaigun lagun-talde bikaina osatu genian unibertsitateko lehen egunetan eta horri esker eskola-orduak erraz pasatzen zaizkiguk. Ederki oroitzen nauk, bai, lehen eskola-eguna. Hantxe sartu gintuan; guztiok elkarri begira geundean eta norbait ikusten duanean, berau ezagutu aurretik, heure buruari eta ez beste inori egiten dizkioan ohiko galderak etorri zitzaizkidan burura. Gainerakoei ere antzekoak bururatuko zitzaizkiela pentsatzen diat: Nongoa izango ote? Bai piura ederra gizaseme horrek duena! Nondik etorri ote? Non erosiko ote du neska horrek soinean daraman arropa desfasatua? Eta mutil lerden eta lirain

hori? Badakik, norberaren autoestimua areagotzeko eta gainerakoak gu baino gutxiago direla pentsatzeko sarri geure buruari egiten dizkiogun galderak.

Tira, kontua zera duk, lehendabiziko egunean talde majo eta jatorra osatu genuela eta elkarrekin oso ondo konpontzen eta moldatzen ginenez gero, oso harreman estua izatea lortu genuela. Eta hortik afariak, bazkariak, parrandak eta hori guztia; badakik, hiri hainbeste eta lantzean behin larregi gustatzen zaizkianak. Baina, zoritxarrez edo zorionez -egia esan, ez zekiat- urte gogoangarri hauek amaitzeaz zeuzkaagu. Jada maiatzean gaudek eta azterketak gaineaz zeuzkaagu. Ez zekiat, ez zekiat... Ez diat gauza onik sumatzen. Nire bizimodua eta heurea ere aldatu egingo direla iruditzen zaidak. Ikusiko diagu.

Etxera iritsi nauk. Nazka-nazka eginda nagok tren hauekin; behingoagatik hileko txartela etxean utzi eta kaka zaharra!, ikuskatzailea etorri zaidak berau eskatzera. Gauzak behar bezala azaldu zizkioat eta madarikatu horrek ez zidak, bada, esan, behin eta berriro, ordaindu egin behar dudala! Eta ni, beti bezain otzan, isildu egin nauk eta etxerako bidaia hori ordaindu egin behar izan diat. Eta sarritan txikia nintzenetik burura etorri izan zaidanarekin egin diat topo: heriotza, hire heriotza.

Haserrarazi egin nauk, madarikatu horrek! Hogeia urte besterik ez heuzkan eta!

Etxera igo nauk; berehala ohartu nauk zerbait gertatu dela. Ama leihoan zegoan zain eta hori ez duk oso ohikoa izaten; izan ere, garai horretan amak ez zeukak leihotik begira egoteko astirik; gainera, badakizkik gure etxeko kontuak eta batez ere, otorduetakoak. Ama erotu egiten duk bazkalorduan. Behin baino gehiagotan esaten hidan hik ez nekiela behar bezala eta denetik jaten; txantxangorri baten modura jaten nuela esaten hidan. Eta nik baietz esaten nian, hik ni bakean uzteko lehenbailehen.

Ezkaratzeko eskailerak igo ditiat, txirrina jo eta amak ireki zidak atea. Bere aurpegia ikusi orduko konturatu nauk amak esan beharrekoa ez zela tarteka-marteka gustura entzun nahiko genituzkeen gauza politak eta ametsezkoak.

Amaren begitarteak gauza asko erakutsi zizkidak segundo gutxiren buruan eta amonaren ustekabeko heriotza etorri zaidak burura. Orduan ere, amak eman zidaan amonaren heriotzaren berri. Oraindik ez zaidak iruditzen amona hil egin zaigula. Ezusteko ederra ordukoa; amonak egin testamentuan niri laga zidana hauxe izan zuan: urrezko kate medailoiduna. Inork sekulan ez zidak ezertxo ere utzi hil ondoren; aitzak hori esan zidanean, negarrari ezin eutsirik logelan sartu ninduan eta negar egiteko gogo bizia izan nian eta malkorik geratu bitartean negarrari ekin nioan amonak idatzitakoaren fotokopia hura behin eta berriro irakurtzen, aitzak esandakoa

egia zela ziurtatu ahal izateko. Eta hik badakik, poztu egin ninduan amonaren xehetasun txiki, baina, aldi berean, handi hark. Lepotik zintzilik zeukaat katea. Eta amonak, dagoen tokian dagoela ere, bihotz-bihotzez eskertzen diodala jakitea nahiko nitek.

Amaren aurpegi zurbil eta itxuragabeak ezbeharraren bat gertatu dela adierazi zidak. Isilik egon duk nik eskailerak igo bitartean eta neure buruari ea aitari ezer larririk gertatu ote zaion itaundu zioat edota ahizpa Itzeak istripuren bat izan ote duen.

Ez zaidak otu hirekin zerikusirik duen ezer gertatu denik. Orduantxe, amak hil egin haizela adierazi zidak. Berehala jabetu nauk horren esanahiaz, baina egia esango diat: ez diat ezertxo ere sentitu eta neure buruari behin eta berriro esan zioat: "Klara, Eneko hil dun, ez al dun ulertzen? Ez dun inoiz gehiago ikusiko! Eta hi, hortxe hago, ezer gertatu izan ez balitz bezala! Esan ezan zer edo zer! Erantzun!".

-Noiz gertatu da?- itaundu zioat amari zentzuzko azalpen baten zain.

-Duela hamar minutu deitu ditene- erantzun zidak amak.

Logelara joan nauk eta Sinéad O'Connorren *No Man's Woman* abestia jarri diat musika-aparatuan. Ohe gainean etzan eta abestiaren esanahiaz jabetu nahian buru-belarri aritu nauk. Benetan abesti zoragarria. Abestian murgildu nauk eta musikarik gabe mundua zeinen tristeia eta zorigaitzekoa izango litzatekeen pentsatu diat. Gogoko dudan abesti hori amaitu bezain laster, berriz ere, abesti bera jarri diat eta horrela igaro diat arratsalde osoa, abesti bera mila bider entzuten.

Ama bizpahiru aldiz sartu duk logelan. Oso kezkatuta ikusi diat. Lagun asko etorri zaizkidak etxera doluminak ematera hire heriotzagatik. Nik ez diat ez doluminak, ez ezeren beharrik hire heriotzagatik eta nik ez zekiat zer esan behar den edo eskuarki zer esaten den edonork doluminak ematen dizkianean. Doluminak jaso edo ez, nik hire beharra, hire premia izango diat bizi osoan. Baina hik badaukak bizi garen mundu honen berri, nahiz eta orain auskalo non hagoen; hik esaten huen bezala egun osoan zehar musika-kontzertu onak eta handiak egingo dituzten lurralde galdu eta harrigarriren batean beharbada? Gertaera bakoitzaren aurrean bazekiagu nola jokatu behar dugun. Norbait hiltzen bada, doluminak eman behar dizkiek haren senideei. Inor ezkontzen bada, zorionak eman behar zaizkiok bikoteari, nahiz eta hik pentsatu "kontxo, gizaseme bikaina suertatu zain! Ondo eta behar bezala pentsatu al dun? Benetako erabakia al dun?".

Astebete pasa duk hil hintzenetik. Pixkanaka-pixkanaka orain konturatzen ari nauk errealitateaz. Bi aldiz pentsatu gabe, jaiki eta hire gurasoen etxera joan nauk, hire logela ikustera. Hire arreba lur jota zegok. Besotik hartu eta hire logelara eraman diat eta han hi eta hire txorakeriez jardun gaituk. Eta hire arrebari irribarre gozoa baina aldi berean garratza atzeman zioat eta horrek kontent jarri naik.

Gogoratzen al duk zenbat txorakeria egiten hituen hire ahotsaren tinbrea aldatuz? Orduan, hire barre egiteko modua etorri zaidak burura; zoragarria zuan hire barre-hotsa; horixe esaten zidaan ahizpak hire barre-hotsa entzuten zuen oro. Deituko diodala esan zioat eta berak nahi duenean deitzeko.

Hi berezia hintzen. Eta berezia esaten dudanean zera esan nahi diat, batetik berezia hintzela hi bezalako pertsona gutxi -eta inor ez esateagatik- ezagutzen ditudalako, eta bestetik berezia hire buruarekin etengabeko borroka huelako. Etengabeko borroka hori inguruko lagunak sortarazten ziaten. Ingurukoek hitaz pentsatzen zutena edo hitaz esaten zutenak egundoko buruhaustek sortarazten zizkian. Eta kontuan izan ezak, nik hik erakutsitakoaz ikasi niala ingurukoez paso egiten; saiatzen ninduan, bederen.

Nik behin eta berriz esaten nian hori ez zela hire arazoa, hik hirea egin behar huela besteek esaten zutenari men egin gabe; egia esan, hik beti egiten huen bihotzak bene-benetan esaten ziana. Ez al duk konprenitzen hi berezia eta bakarra hintzela? Ez al duk ulertzen mundu zabaleko bazter eta zoko guztiak ondo arakatu ondoren, hi hintzela aurki zitekeen gizakirik arrotz, bakan eta bitxiena? Hi berezia hintzen eta horrexegatik ez huen ezergatik kezkatu behar. Hi, hi hintzen: hire buruaren eta hire pentsamenduen jaun eta jabe.

Hementxe nagok betiko lekuan eta hi gabe. Joan egin haiz; bien bitartean, hemengo bizimoduak berdin-berdin jarraitzen dik hi hemen egon ala ez. Ez duk ezertxo ere aldatu. Guztiok geure zereginei ekin zieagu eta inor ez duk konturatzen heu falta haizela. Ni eta hire familia gaituk hire falta sumatzen dugun bakarrak.

Jada hau ez duk nik nahi dudana. Nazkatzen hasia nauk honekin guztiarekin eta horrexegatik Londonera joango naizela erabaki diat. Hi, betiere, gogoan izango haut, baina horrela gutxiago sufrituko dudala iruditzen zaidak. Bizimodu berri bati emango zioat hasiera eta kontatuko diat, bai, bizimodu berri honek zer ekarriko didan etorkizunean. Kontatuko diat, hitzematen diat.

Lehenik eta behin, amari kontatu zioat nire asmoa eta zer esango diat, bada? Ondo iruditu zaiola uste diat. Dena den, entzun egin behar izan ditiat lagunak eta ingurukoek esanak: "Hik uste al dun horrela Enekoren heriotzari aurre egingo dionala? Ziur al hago pentsatu dunarekin? Badakin, zer edo zer behar badun hementxe izango gaitun hiri laguntzeko prest; lagunak horretarako zeudek, ezta?"

Loiuko aireportu berrira eraman naik aita eta hegazkina hartu eta Londonerako bidea hartu diat. Hasieran bakar-bakarrik sentitu nauk; ez zekiat, sentsazio arraroa izan diat nire baitan eta kezkatu egin nauk. Baina berehala, hobeto

sentitzen hasi nauk. Supituki gu biok elkarrekin Londonera egin genian bidaia gogoratu diat eta ingelesarekin izan genizkian arazoak etorri zaizkidak burura.

Barre-algara ederrak egin genitian hire kontura hegazkineko azafatari coca-cola eskatzera hindoala hire ingeles-azentu kaskar horrekin “coke” bat, idazten den bezalaxe, eskatu hionean eta hark tutik ere ulertu ez zianean. Koloreak atera zitzaizkian eta zaila duk hiri koloreak ateraraziko dizkian edozer esatea, gehienetan alderantziz izaten zuan eta. Tarteka, ateraldi bikainak izaten hituen; bai, hori esan beharra zegok eta horien kontura ez genian, ez, txarto pasatzen.

Heathrow-eko aireportura iristen ari ginela, British Airway konpainiako azafatak hainbat azalpen eman zizkiguk eta berehala atera gaituk hegazkinetik. Motxila hartu diat eta labirinto moduko hainbat korridore igaro ostean Piccadilly linea hartu eta Piccadilly Circus geltokian jaitsi nauk.

Metroan nindoala, txiki-txikitatik gustatzen zaidan jolasari ekin zioat. Ene parean gizon beltz bat zegoan liburu bat eskuan zuela; haren aurpegia begiratu orduko, irakurtzen ari zen eleberria interes handikoa behar zuela izan konturatu nauk. Eta bere bizitzaz den-dena jakiteko gogo bizia piztu zaidak. Gizon sinple baina aldi berean interesgarri hark berrogei bat urte izango zitian; ezkondua eta bi seme-alaba. Unibertsitateko irakaslea eta ziurrenik etxerako bidean zihoaan. Emaztea etxean zain izango dik. Gizona etxera iritsi, emazteari musu gozo eta bero bat eman ostean, honek laneko gorabeheren berri itaunduko zioke senar kuttunari eta hark lanegun lasaia izan duela ihardetsi.

Eguerdiko ordu bata aldera iritsi nauk Piccadilly Circus-era eta eskaileretan gora nindoala eskale bat ikusi diat. Lurrean eserita zegoan eta antza, ez zian familiarik; hori pentsatu diat; bestela, ez lukek harrizko zoru hotz eta heze horretan eseriko.

Metrotik atera eta motxila zamatsua bizkar gainean nuela, kafetegi edo taberna bat bilatzen hasi nauk eta ibilian kanpotik atsegina eta beroa zirudien taberna bat aurkitu diat. Gehiegi pentsatu gabe bertan sartu nauk. Motxila mahai baten izkinan utzi eta barrara hurbildu nauk kafea eskatzera eta barraren bestaldean zegoen neska gazteak eztiki galdetu zidak ea zer nahi dudan. Nire ahoskera kaskar samarra dela eta, atzerritarra naizela konturatu duk eta ohikoa eta topikoa denez agerikoa nongoa naizen galdetuko zidala. Eta horixe itaundu zidak. “*I come from the Basque Country*” erantzun zioat eta ez dakik zeinen gustura eta kontent jarri naizen hori esatean; ez Euskal Herrikoa naizelako, bat-batean eta bi aldiz pentsatu gabe, lehendabizikoan esaldi hori ongi ahoskatu dudalako eta zerbitzariak lehenengoan behar bezala ulertu didalako baizik.

Kafea bero samar zegoan eta nongoa naizen galdetu didan neskari esnea eskatu zioat. Taberna oso atsegina zuan, orain Euskal Herrian edozein tokitan ikus daitezkeen Irish Pub horien antzekoa. Giro lasaia zegoan. Kalean hotz. Eta tabernako goxotasuna benetan eskertzekoa zuan. Motxila bizkarrean hartu, lagun batek oparitu zidan larruzko diru-zorroa atera eta hartutako kafea ordaindu diat. Barraren bestaldeko neskak, motxila bizkar gainean nuela ikusi orduko, nire egonaldiaren berri jakin nahi izan dik.

-Non pasako duzu gaua?

-Egia esan, ez dakit. Duela pare bat ordu etorri naiz eta orain hasiko naiz ostatua bilatzen- ihardetsi zioat nahiko urduri. Urduritasunak eraginda zigarro bat atera eta piztu egin diat. Orduan, bere ondoan zegoen mutilari keinu bat egin zioek eta mutilak burua astindu dik gora eta behera.

-Nahi baduzu eta ondo baderitzozu gurekin etor zaitezke bizitzera. Etxe zahar batean bizi gara ni eta Paddy. Ledbury Road-en. Metroz joanez gero, ordu erdi bat gutxi gora-behera. Egia esan, ez da oso auzo lasaia baina tira, ez dago gaizki, e Paddy?

Paddyk ez dik ezer esan. Isil-isilik egon duk. Ez nekian zer egin; oso aukera ona zuan, baina haiekin bizitzen jarritz gero, ez nian erabateko askatasuna izango. Dena den, egia dena zera duk, bakarrik bizitzen jartzea garestiegi aterako zitzaidala. Hori dela eta, eta bi aldiz pentsatu gabe onartu egin diat euren eskuzabaltasuna.

-Primeran. Klara naiz eta Euskal Herritik nator- esan zieat eskua luzatuz.

-Ni Grace eta nire pisukidea Paddy. Tira, zergatik ez zoaz etxera Klarari laguntzera, Paddy? Horrela auzoa ezagut dezake. Ni bostetan aterako naiz eta etxean elkar gaitezke. Bai?- galdegin dik Gracek mahaiaietatik edalontziak jasotzen ari zen bitartean. Paddyk baiezkoa erantzun dik. Neure buruari ea Paddyk badakien hitz egiten galdetu zioat, txantxetan, jakina; ni tabernan egon naizen bitartean ez baitu deus ere esan. Orduan, elkarrekin ez ote dabiltzan pentsatu diat; baina, hori horrela balitz, Gracek ez likek esango bere "pisukidea" dela, "mutil-laguna" baizik. Ez zaik iruditzen? Tira, kontua zera duk, Grace agurtu eta Paddy eta biok metro-geltokirantz abiatu garela. Paddyk motxila eramango zidala esan zidak eta nik ezetz, lasai egoteko, gauza nintzela berau bizkar gainean eramateko.

Paddy hogeita hiru edo lau urteko mutila duk; oso lotsatia, hitz egiterakoan izugarri kostatzen baitzaio begietara tinko begiratzea. Berehala begirada kentzeko joera dik. Ez zekiat, beharbada lotsagatik edo...

-Lehenengo aldia?- galdetu zidak Paddyk.

-Lehenengo aldia zer?- erantzun zioat ezertxo ere ulertu gabe.

-Ea hau den Londonera egin duzun lehendabiziko bisita.

-A! Zeinen tuntuna naizen! Ez dizut ulertu!- orain ere barregarri geratu nauk-. Pasa den udan ere hemen izan nintzen bost bat egunetarako.

-Bakarrik?- galdetu zidak metro-geltokian sartzen ari ginela. Une horretantxe ez diat jakin zer erantzun; izan ere, hirekin joan nintzela erantzun izan banio, guztia

kontatu beharko nioan; badakik, hire zorigaiztoko heriotza, hona etortzearen arrazoia... Eta ez diat horrekin guztiarekin hasteko gogorik izan. Kontatuko zieat egunen batean; gaur behintzat, ez.

-Bai. Badakizu, eguneroko monotonia eta eginbeharrekin hausteko primerako abagunea. Joan den urtean amaitu nituen ikasketak eta lanean hasi aurretik esperientzia berriak, jende berria ezagutu eta... hori guztia egin nahi izan nuen...- lotsagarri geratu nauk, Eneko. Nork sinets dezake pertsona bat Londonera joan dela lagun berriak egin, esperientzia berriak bizi eta abar bost egunetarako? Zer pentsatuko ote zuen Paddyk?

Metroa berehala etorri duk eta hurrengo geltokian jaitsi egin behar izan diagu, izan ere Paddyk beste linea bat hartu behar genuela esan zidak, Jubilee linea, hain zuzen ere. Ondoren Bond Street geltokian jaitsi eta Central linea hartu diagu Notting Hill metro-geltokian jaisteko. Euren etxetik askoz ere hurbilago dagoen geltokirik badela esan zidak Paddyk, baina Notting Hillen jaitsi gaituk auzoa pixkanaka-pixkanaka hobeto ezagut dezadan. Minutuak aurrera joan diren heinean, lasaiago sentitu nauk. Hasiera batean, Gracek agurtu gaituenean, urduri jarri nauk, Paddyk ez baitzuen txintik ere esaten eta nik jada neure buruari galdetzen ari nintzaioan zer demonstreri buruz hitz egingo genuen; alabaina, metroan sartu garenean, hainbeste jenderen artean, gustura egon nauk Paddy ondoan nuela jakinik.

Notting Hill auzoa nahiko handia duk. Tira, Eneko, ondotxo gogoratuko haiz. Oroitzen al haiz Portobelloko merkatuan hi galdu egin hintzela? Beno, hik ni galdu nintzela esaten huen. Baina hori gezurra duk. Hi izan hintzen noraezean ibili zena eta ez ni. Kontua zera duk, alderik alde ibili garela hango jendea, dendak, tabernak eta guztia ezagutzen eta egia esan erakargarria iruditu zaidak.

Dena den, hasieran baino lasaiago eta erosoago egon arren, ez nauk erabat lasaitu Grace agertu den arte. Ez zekiat, Eneko, baina, zerbait igartzen zioat mutil horri. Begietara begiratzea oso kostatzen zitzaioala uste nian, alabaina metro geltokian berarekin hizketan ari nintzela bat-batean tinko begiratu zidak eta horrek oso-oso urduri jarri naik. Hik badakik, norbaitekin mintzatzean ezinbestekoa zeritzoat solaskideek elkarri begiratzeari. Bada, Paddy horrelakoxea duk; hala eta guztiz ere, ez zekiat, ez zekiat; zerbait dik mutil horrek, adierazi ezin diadan zerbait erakargarria.

Bostetan puntu-puntuan Grace agertu duk irribarretsu. Paddyk ondo tratatu al nauen galdetu zidak eta baietz erantzun zioat. Taberna batera sartu gaituk hirurok eta sandwich batzuk jan ostean, garagardo batzuk edan ditiagu zurezko mahai altu baten inguruan. Garagardo dezente edan ondoren, mingaina arin-arin genian; ezin atertzeko hitz jario ederra genian eta geure bizitzan zehar izandako gorabeherei buruz jardun gaituk.

Gracek hogeita bat urte zeuzkak eta gurasoak Guildford-en ditik. Anaia aspalditik omen zebilek droga-arazoetan sartuta. Dirudienez, ez zian etxeko giroa atsegin eta erabat aztoratuta hogeitertekin Londonera joatea erabaki zian. Oso erabaki gogorra izan omen zuan, baina ez zian beste irtenbiderik izan, antza. Urtero joaten duk etxera astebete igarotzera, maiz gogoratzen baititu senideak; batez ere, bere anaia zaharra.

-Eta utzi al ditu drogak?- galdegin zioat.

-Orain hobeto dabilela uste dut, baina ez dakit zer esan. Etxean egon nintzen azken aldian ez nuen giro ona sumatu. Ama nahiko goibel zegoen eta ez nion ezer galdetu nahi izan; bestela, negarrez hasiko baitzen...

-Gogorra izan behar du horrek, e?-esan zioat lasaitzeko asmoz edo...

-Eta okerrera zera da, Tom droga-kontuetan hasi zenean nik banekiela zertan zebilen; eta etxean ez nuen deus kontatu. Ez nuen uste hainbesterako izango zenik. Egun batean, gauean, dei anonimo bat jaso genuen, Tom konorterik gabe kale bazterrean zegoela esan ziguten, sobredosia edo...Hurrengo goizean amari den-dena kontatu nion, nekien guztia eta amak Tom horrela egotearen errua leporatu zidan. Oihuka hasi zitzaidan, nekien guztia esan izan banu, Tom ez zela horrela egongo esanez. Biziki mindu ninduen amak, baina egoera horretan halako gauzak esatea normalizat jo nuen eta horrexegatik barkatu nion amari berak esandako guztia—.Ni eta Paddy isil-isilik geratu gaituk. Paddyk ziur asko jakingo zitian gorabehera horiek guztiak; hori pentsatu diat.

-Eta orain? Zer moduz amarekin?- itaundu zioat.

-Ondo, baina ez lehengo modura.

Hirurok isil-isilik geratu gaituk mahai borobil eta altu horren inguruan. Eta Paddyk bazterreko mahai batean esertzeko proposatu ziguk. Lehengoarekin jarraitu diagu.

-Eta zu, Klara? Kontatu zer edo zer zeure bizitzari buruz!- itaundu dik Gracek.

-Zer esango dizuet, bada...- ez nekian egia osoa kontatu ala lehengo antzera, gezurtxoren bat edo beste luzatu eurak isilarazteko - guraso eta ahizparekin bizi naiz. Ahizpa ni baino urtebete zaharragoa da eta...-ez nian zeresanik. Hire heriotzaz gain ez nian ezer berezirik kontatzeko.

-Besterik ez? Zu bezalako neska gazte batek izango du, bada, zerbait interesgarria kontatzeko!- luzatu du Gracek niri bizkarrean joz. Bien bitartean, begiak Gracerengan nituela, Paddy begira zegoela ohartu nauk. Ez ditiat ezagutzen, ez Grace, ez Paddy; baina Paddy nahikoa mozkor zegoela iruditu zaidak. Oso alai zegoan eta etengabe hirurontzako garagardoak eskatzen ari zuan.

Konturatzerako gaueko hamarrak jo ditek eta etxerantz abiatu gaituk.

-Zer, egunero joaten al zarete erdi mozkor etxera?-galdetu zieat txantxetan.

-Klara, oraindik zain gaude! Zuk ez diguzu ia ezer kontatu. Nik eta Paddyk gure bizitzako gorabeherak kontatu dizkizugu eta zuk ahizpa bat eta gurasoak dituzula bakarrik esan diguzu. E, Paddy? Ez al zaizu iruditzen neskato honek izango duela zer kontatu?- oihera egin dik Gracek alkoholaren eraginez Paddyri musu gozo bat masailan eman dion bitartean.

Egia esan, jeloskor jarri nauk, Eneko. Eta irudi hark hainbat buruhauste sortu zizkidak. Elkarrekin ibiliko ote dira? Nik ezetz esango nikek; haatik, litekeena da Grace erabat maiteminduta egotea Paddyrekin, baina beharbada Paddyk ez dik ezertxo ere jakin nahi euren arteko adiskidetasunaz gaindi... Batek daki. Bistakoa duk musu horrek ez duela ezer esan nahi izan eta ni hemen nabilek: beste egitekori ez banu legez, buruari birak eta birak emanaz, istorioak asmatzen. Zer iruditzen zaik? Hik berehala kontatuko hidake hire bertsioa eta hire bertsioak... zer esango diat... nahiko lizunak izaten zituan.

Paddyk hogeita bost urte zeuzkak, baina askoz ere gazteagoa zirudik. Ilea ikatza bezain beltza dik eta begiak marroi ilun-ilunak. Azalez ez duk beltzarana, ez eta zurbila ere. Irribarrea zoragarria, maltzurra eta batzuetan lotsatu egiten duk eta orduan, sentitzen duen lotsa irribarre maltzur horren atzean ezkututzen dik. Hasieran oso-oso isila zuan, baina orduak igaro ahala hitzontzien gisara ez duk isildu ere egin.

Hamaikak pasatxo irten gaituk tabernatik eta zuzenean etxera joan gaituk. Egia esan, oso alai geundean eta Paddy eta Grace abesten hasi dituk zein baino zein okerrago. Nik belarriak estali ditiat eta isiltzeko agindu; hala ere, ez zidatek batere kasurik egin. Pisura iritsi gaituk eta Gracek nire logela zein den adierazi zidak. Motxila pasabidean nian eta berau hartu eta logelara joan nauk. Atea ixtera nindoala Paddy eta Grace logela berean sartu direla ikusi diat; barrez eta oihuka ari zituan eta berehala ulertu diat bazutela zerbait eskuartean.

Goizean nahiko berandu esnatu nauk eta bainu-gelara joan ostean, sukaldean sartu nauk eta hantxe zeudean biak gosaltzen. Niri ere gosari ederra prestatu zidatek. Ez diagu gehiegi hitz egin; hirurok biharamuneko krisialdian geundean bete-betea. Ur hotzetan dutxatu, jantzi eta kalera irteteko asmoa banuen ere, ohean sartu nauk berriz. Grace lanera joan duk eta Paddy etxean geratu duk. Berriro ohean sartu dela uste diat. Ametsetan aritu nauk: bezperako erdi parranda hartan nengoan artean. Ametsetan eta esna aldi berean. Bat-batean Paddyk iratzarri naik eta ezusteko itzela izan diat. Begiak ireki eta hantxe nian Paddy pare- parean logela barruan niri so.

-Oraindik ere lo? Ez al zara dutxatu, bada? - galdegin zidak Paddyk eztiki.

-Bai, baina berriz sartu naiz ohean. Buruko min handia dut- erantzun zioat, pixka bat urduri. Izan ere, ez nengoan lasai; ni neu ohean eta bera zutik niri begira.

-Nahi al duzu aspirina bat?

-Ez, milesker. Ez da hainbesterako- ihardetsi zioat.

-Tira, jantzi eta goazen kalera. Egun zoragarria dugu gaurkoan eta honelako egunak gutxi izango dituzu.

Oinez joan gaituk Hyde Parketik barrena Green Parkera eta bertan gosaltu egin diagu bigarren aldiz. Egun zoragarria, Eneko. Oso mutil interesgarria irudit

zaidak Paddy. Gauza askori buruz hitz egin diagu eta orduantxe ikusi diat nituen zalantzak argitzeko parada bikaina.

-Paddy..., zu eta Grace... elkarrekin zabiltzate? Edo... – galdegin zioat urduri samar.

-Zergatik diozu hori?

-Ez... burutik pasa zait, besterik gabe.

-Atzokoarengatik esaten ari zara? –erantzun zidak irmo-. Tarteka oheratzen gara... ez askotan. Baina ez dago ezer gu bion artean. Nik ez dut Grace maite.

Ez dakik zeinen kontent jarri naizen, hori entzun bezain laster. Paddy mutil jatorra duk, Eneko.

Eguraldi ederra. Udaberriko lehendabiziko eguzki-printzak gogoko ditiat eta egun osoa eramango nitek, eguzkipean konpainia ona izanez gero. Bazkaldu aurretik, Gracek lan egiten duen tabernara joan gaituk bisitan eta bi garagardo fresko edan ditiagu. Txorakeria pare bat esan eta bazkaltzera joan gaituk Paddy eta biok. Egia esango diat, Eneko: maitemintzen ari naizela iruditzen zaidak eta ez diat hiri minik egin nahi. Bazekiat berebiziko tontakeria bat dela esaten ari natzaiana; hil egin haiz eta ni hiri min egiteko beldur. Ezin haut burutik kendu; oraindik bizirik hagoela iruditzen zaidak...Pentsa, honaino etorri bizimodu berri bati hasiera emateko asmoz eta hi beti nire buruan habil... Lortuko al dut hire hutsuneaz ez ohartzea? Egunen batean esnatu, ohetik jaiki eta hire existentziaz ez nauk oroituko. Iritsiko ote da egun hori?"

Kaixo Eneko.

Berrogeita hamabi urte igaro dira orrialdeok idatzi nituenetik,

Bilobek aurkitu zituzten etxeko ganbaran jolasean zebiltzala. Doi-doi irakurri ahal izan dut eskuizkribua, erabat zaharkituak baitaude aspaldian idatzi nituen orrialdeok; bestetik, hunkigarria eta ederra izan da. Begiak malkoz lausotuak ditut eta behin baino gehiagotan malkoek eragotzi egin didate irakurketa. Oroitzapen zirraragarri eta, aldi berean, garratzok gaztetu egin nautela aitortu behar dut.

Isuri ditudan malkoek berpiztu egin naute eta eskuizkribuko orrialde, paragrafo, esaldi eta hitz bakoitzak gaztaroa gogorarazi dit.

Hirurogeita hamar urteko amonatzorioriontsua naiz. Duela hamar urte hil zen Paddy.

Londonera eginiko bidaia horretan Paddyrekin maitemindu nintzen eta hiru seme-alaba zoragarri izan genituen: Eneko, Sara eta John. Londonen hiru urte egin genituen eta ondoren Euskal Herrira itzuli nintzen Paddy eta seme-alabekin.

Bost biloba dauzkat eta eurak izan dira ganbarako bazter guztiak miatu ondoren orrialdeok aurkitu dituztenak. Mila bider irakurri dudak altxor preziatu hau iazko Eguberrietan oparitu zidaten seme-alabek eta bilobek.

Lastar elkarr ikusiko dugu.

Bihotz-bihotzez,

Klara

(Eguberri zoriontsuenak igaro ostean, Klarak azken hatsa eman zuen seme-alaba guztiak inguruan zituela. Aurpegian islatzen zen irribarrea gozoa eta samurra zen.)